

**“MEMORIA DUTEN ABESTIAK” 1970 - 2000 BITARTEKO
GIZARTE MUGIMENDU BERRIEN INGURUKO IKASKUNTZA
EGOERA.**

IRUNE BUENO DELGADO

Laburpena

Lan honetan proposatzen den ikaskuntza egoerak musikaren bitartez historia irakasteko aukerak aztertzen ditu. Zehazki, musikaren erabilpena baliabide didaktiko gisa 1970 eta 2000en hamarkadetako gizarte mugimendu berriak azaltzeko eta aztertzeko. Aukeratutako mugimenduak hurrengoak dira: memoria historikoa, feminista, okupa eta intsumitua. Ikaskuntza-egoera honetan, amaierako produktu gisa ikasleen artean mapa kolektibo interaktibo bat sortzea proposatzen da, memoria gune ofizialak eta ez ofizialak edo subalternoak kontutan hartuta. Horrela, proposamen honek iturri eta baliabide historikoak zein artistikoak erabiltzen ditu, iragan hurbileko memoria ofizialera, ez ofizialera eta subalternora hurbiltzeko baita historia mikrohistoriaren, behetik abiatutako historiaren eta generoaren ikuspegietatik eraikitzeko.

Hitz gakoak: musika, memoria, historia, didaktika, gizarte mugimendu berriak.

SARRERA:

Hurrengo lerroetan garatzen den ikaskuntza egoeraren helburua musika eta memoria baliabide didaktiko gisa erabiltzea da, 1990eko eta 2000ko hamarkada bitarteko gizarte mugimendu berriak azaltzeko eta aztertzeko. Honen bitartez ikasleengan pentsamendu historikoa eta pentsamendu kritikoa garatzea proposatzen da, abestiak bezalako tresnak erabiliz, batez ere, lehen mailako eta bigarren mailako beste iturri batzuekin batera, hala nola testigantzak, prentsa edo dokumentalak. Horrela, ikasleek iturriak, ikerketa eta metodo historikoa zuzenean lantzea sustatzen da.

Proposamena Unibertsitateko eta Bigarren Hezkuntzako mailen arteko aldea arindu nahi du; izan ere, memoria historikoa eta gizarte mugimendu berriak unibertsitate zein historiografia eremuetan geroz eta gehiago lantzen diren gaiak diren arren, eduki hauek ez dira modu berean Bigarren Hezkuntzara heltzen. Memoria historikoaren edukiak ikasgeletan maizago sartzeko badira ere, gizarte-mugimenduetakoak edo orokorrago, trantsizio eta demokrazia garaiak ez dira horren maiz azaltzen ikasgeletan. Horren aurrean, memoria hezkuntzan txertatu beharreko edukiak da iragana ez ahazteko agindua eta ekimenarekin iharduteko, baita gizarte mugimenduekin lotuta, gizartearen bilakaera soziopolitikoaren zein kulturalaren azterketa eta lanketa, gaur egungo testuingurua hobeto ulertzeko. Bi horiek, iragan traumatikoekiko baita gaur egungo gatazka soziopolitikoekiko kritikotasuna eta kontzientzia historikoaren lanketarekin lotuta dago. Gizarte mugimenduek beren borroka hamarkada luzeaz egin zuten, baita gaur egun ere egiaren, justiziaren, erreparazioaren, espazioen, bakearen, gerren edo gatazka armatuen amaiaren baita gizarte zein mentalitateen aldaketen aldarrikapenekin.

Aurreko guztia kontutan hartuta baita musikatik eta memoriatik abiatuta “Memoria duten abestiak” ikaskuntza egoera proposatzen da lanean, non memoria ardatz nagusi izanik eta musika baliabide didaktiko gisa erabili den 1970 eta 2000en hamarkada bitarteko gizarte mugimendu berriak azaltzeko eta aztertzeko. Aukeratutako mugimenduak hurrengoak dira: memoria historikoa, feminista, okupa eta intsumitua.

Epistemologikoki mikrohistoriaren ikuspuntua erabili da, zeinetan Levik dioen bezala ikuspuntu txikiago batetik abiatuta galdera handiagoak erantzun daitekeen¹. Horrela, ikaskuntza egoeran Iruñerriko adibidearen medio ikasleek errealitate geografiko zabalagoa ulertzea bultzatzen da Nafarroarena, Euskal Herriarena edo Estatu

¹ Giovanni LEVI: Microhistoria e historia global. *Historia Crítica*, 69, 2018, 22.or.

Espainiarrarena izan. Mikrohistoriaren aztergaia lurraldea, gizabanakoa, denbora, gertaeren, objektuen edo iturrien mugaketa izan daiteke. Horrekin batera, mikrohistoria jende errearenganako hurbilketa dakar, nire kasuan ahozko iturriak abestien, testigantzen eta dokumentalen bitartez lantzen da. Abeslariak haiek beraiek eta giza talde batek bizi duen testuinguruari erreferentzia egiten diote eta dokumentaletan zuzenean partaideen, biktimen, familien edo bizilagunen testigantzak ageri dira. Zentzu horretan, mikrohistoriaren lurralde-begirada Gizarte Zientzien didaktikaren ekarpenekin ere lotuta dago, izan ere hurbileko lurralde-testuinguru batetik egindako lanak ikasleei gai orokorrak hobeto ulertzeko aukera ematen die eta, ikasleek Historiari edo gertakari historikoei lotutako urruntasun-sentsazioari aurre egiten zaio. Horrela, proposamena Iruñeko ikastetxe batean egin dela kontuan hartuta, proposamena Iruñerrian kokatzen da, honetatik abiatuta ikasleek lurralde errealtate zabalagoa uler dezaten, hala nola Euskal Herrikoa edo Espainiar Estatukoa.

Metodologiari dagokionez, lan honen sustraia abestien bitartez gizarte mugimenduak aztertzea eta lantzea denez, gizarte mugimendu bakoitzarekin lotutako eta ikasgelan aproposak diren abestiak hautatu dira. Bestalde, ikaskuntza egoera honek hainbat iturri lantzen ditu, hala nola lan egiten den une historikoari buruzko lehen mailako iturriak, bai aukeratutako abestiekin, bai albisteekin edo ahozko iturriekin ikasleen interesa sustatzeko. Honek, alde batetik ikasleek metodologia historikoa ezagutzea, eta, bestetik, analisi kritikoa eta bereziki, pentsamendu historikoaren gaitasunak garatzeari lotuta dago. Bestalde, proiektua metodologia berritzaileen erabilpena bultzatzen da, edukien problematizazioa abiapuntu izanik metodologia kooperatiboen-aktiboaren eta IKT-en erabilpena sustatzen da mapa kolektibo interaktiboaren bitartez.

1. ESPARRU TEORIKOA

Ikaskuntza-egoera Gizarte Zientzien eta Historiaren esparru didaktikoan kokatzen da. Lehenengoa, jakintza teorikoa eta praktikoa garatzen duen jarduera espezifikoko diziplina gisa definitzen du Mendiorozek². Bigarrenaren helburu gorena Historia irakasgaiaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuarekin lotutako ikuspuntua, arazoak, orientazioa eta konponbideen bilatzea da eta, beraz, ikasleen ezagutza historikoen asimilazioa, praktika

² Ana MENDIOROZ: Didácticas de las ciencias sociales: formación del área e integración del conocimiento. *Didácticas de las ciencias sociales*, 2013, 1-288, 18.or.

sozialean aplikatzeko prozedura, trebetasun kognitiboen garapena eta balioak eratzten lagunduko duten jarrerak aztertzea³.

Historiaren didaktikaren barne, proposamena bi korronte jarraitzen ditu, Behetik abiatutako historia eta Arazoen edo Gai Eztabaidagarrien araberako lana. Lehenaren aztergaia masa anonimoak eta ikusezin subjektuak dira, zeinak eraldaketa historiko handien motorra izan diren, talde horien borrokak ikusaraztea bultzatuz. Hala historia tradizional klasikoaren aurkako korrontea da, izan ere azken honetan: historia politikoa eta instituzionala lantzen da, ikuspegi androzentriko, patriarkala eta Mendebaldeko batetik eta beren protagonistak gizarte-maila gorenekoak dira; behetik abiatutako historia kontran, masa anonimotan jartzen du fokoa kolektiboen erresistentzia-dinamikak eta -borrokak ikusaraziz. Arazoen edo gai eztabaidagarrien araberako lanaren barne bi korronte desberdin dira, curriculumaren gaien problematizazioan, lan eta eztabaida prozesuaren araberako irakaskuntza bultzatzen duena eta bigarrena, gizarte arazoetan eta gai eztabaidagarrietan oinarritutako curriculum aldarrikatzen duena. Bi horien araberako lana egiteak hausnarketa eta ulermena sustatzen du, batez ere ikasleoa beren egunerokotasunean aurki dezaketen arazoak lantzen badira eta horrekin protagonista sentitzen dira, ikastetxearen eta kanpoko munduaren arteko loturak egiten dituztelakoan. Gainera, honek ere trebetasunen garapena, pentsamendua zein eztabaida, negoziazioa eta erabakiak hartzeko gaitasunak bultzatzen ditu.

Musika egiten den garaiaren isla den heinean, hainbat alderdi sozial, kultural, politiko eta ekonomiko ikuspegi subjektibotik adierazteko gaitasuna du, eta beraz, lehen edo bigarren mailako iturri gisa erabil daiteke iragana ulertzeko eta aztertzeko, bai hezkuntza-guneetan, bai eremu akademikoetan. Hernández eta Martínez-ek beren ikerketan aipatzen duten moduan, musikaren erabilera Lehen Hezkuntzan ez da arruta, eta beraz, ondorioztatu daiteke Bigarrean are gehiago ez dela arrunta⁴. Zentzu horretan Martínez eta Pages gehitzen dute musika erabiltzen denean irakasgaietan badela letren analisirako, testuak egiteko, interpretaziorako edo komunikazio trebetasunak lantzeko⁵. Musikaren

³ Rita Marina ÁLVAREZ DE ZAYAS: “Historia o Didáctica de la Historia”, *Revista de Teoría y Didáctica de las Ciencias Sociales*, (1), 4-3, (1996), 27 eta 29.or.

⁴ José Manuel HERNÁNDEZ, Marta MARTÍNEZ, Silvia GARCÍA & Pilar RIVERO: “La música como recurso educativo en la enseñanza de la historia y el patrimonio”, *Perfiles educativos*, 45 (182), (2023), 134 – 153, 147.or.

⁵ Iván Andrés MARTÍNEZ & Joan PAGÈS: “Las canciones: un recurso para la comprensión de problemas relevantes desde las identidades y las alteridades”. *Deconstruir la alteridad desde la Didáctica de las Ciencias Sociales: educar para una ciudadanía global*, (2016), (pp. 375-382).

erabilera Gizarte Zientzien irakasgaietako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen barne erabiltzeak hainbat alderdien lanketa suposatzen du horien artean: pentsamenduaren trebetasunak estimulazioa, beren garaiari edo iraganari erreferentzia egiten dioten letrak baitira, eta, beraz, alderdi historikoei, kulturaleri, gizarte-, politika- edo iritzi-arloko edukiei erreferentzia egiten diote, kasu askotan isildutako edo ikusezin bihurtutako subjektuak dira, eta, beraz, taldeen gizarteratzea eta kulturarteko hezkuntza bultzatzen da. Aldi berean, musika kultura ikasleengana hurbiltzen duen elementu bat da, hainbat estilo, lotura edo gertaera erakutsiz. Gainera, ikasleen interesa areagotzen du, interpretazioa, eztabaida eta ezagutza sustatuz.

Memoriaren didaktikari dagokionez, azken hamarkadatan oroimenaren eztanda eman da. Elizabeth Jelinek arabera, iragana kultura-produktuetan gauzatzen saiatzen direnean gertatzen da memoria, eta produktu horiek iraganeko memoriaren ibilgailu bihurtzen dira gaur egun⁶. Hezkuntza arloan gertuko historiaren eta iragan traumatikoen edukiak presentzia eztabaidagarria dute gizartean, honek agerian uzten du prozesu horiek ikasgelara eramateko zailtasunak, beren protagonistak bizirik jarraitzen dutelako edo sozialki eztabaidak sortzen dituztelakoan. Horren aurrean, memoria funtsezkoa da hezkuntzan, ez errepikatzeko aginduarekin jarraitzeko eta ahazten ez uzteko, eskolak ez baitu baztertu behar iragan hurbileko arazoek lanketa, baizik eta konplexutasunetik aurre egitea.

Zentzu horretan, Cuestak aipatzen duen bezala memoriak irakaskuntza bost prestakuntza – dimentsio ditu, hurrengoak: indibiduala (bizitako eta ikasitako iragana kudeatzeko kapazitate indibiduala), soziala (memoria eraikuntza kolektiboa baita), historikoa (haren azterketak kontzientzia historikoa eta demokraziaren bidezko hezkuntza barne hartzen baititu), gatazkatsua (memoria eztabaidak eta gatazkak sortzen dituelakoan) eta selektiboa (memoriak ahanzturak sortzen baititu)⁷.

Espainiar estatuan demokraziaren hastapenak memoria adiskidetzailerik batek markatu zuen Hezkuntza, non Gerra Zibila tragedia nazional gisa geratu zen, erruak banatuz. 1990eko hamarkada erreparazioaren memoriak markatu zuen, ikasgeletan memoriaren presentzia

Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales (AUPDCS), 85 eta 95.or.

⁶ Elizabeth JELIN: *Los trabajos de la memoria*. Madrid: Siglo XXI de España editores, 2002, 37.or.

⁷ Raimundo CUESTA: “Historia con memoria y didáctica crítica”. *Con-ciencia social: anuario de didáctica de la geografía, la historia y las ciencias sociales*, (2011), (15), 15-30, p. 24-28.

handituz, baina indarkeriaren erabilera, erantzukizunak, errepresioa eta generoa alde batera utziz. Gaur egun, eduki horiek presentzia handiagoa dute, bistan da curriculumean duten presentzia. Hala ere, alderdi batzuk falta dira oraindik, eta, horren ondorioz, horien azalpena irakasleen araberakoa da.

Memoria espazioetan kokatzen da, memoria-lekuen kartografia sortuz. Horiek Pierre Norak definitu zituen lehen aldiz, oroimen kolektiboa produktu sozialekin gordetzen eta gauzatzen den espazio gisa, iragana, oraina eta etorkizuna lotzen dituen historiatic at geratzean norberaren borondateatik abiatzen den eta pertenez- eta desatxikimendu-sentimendua sortzen duen oroitzapenezko kontzientzia gisa⁸. Sentimendu horiek pluralak eta talde desberdinetakoak izatea eragiten du, eta, beraz, memoria-leku desberdinak sortzen ditu, ofiziala, ez ofiziala eta subalernoak. Memoria ofiziala estatu modernoan garapenarekin eta XIX. mendeko nazionalismoarekin lotzen da, historia legitimatzaile gisa politikoki erabiltzeagatik eta kontakizun nazional ofizial eta hegemonikoak, eta, beraz, instituzionalizatuak eraikitzeagatik.

Kontakizun eta memoria ofizial hegemonikoak mantentzen saiatu arren, hainbat onarpen-edo mendekotasun-maila daude, eta horrek subalternitatea sortzen du, isilarazitako diskurtso gisa. Pollakek subalernoak memoria hegemonikoaren aurka, ahoz transmititutako esperientzia komunen bidez elkartua diren kolektibo gisa definitzen ditu⁹. Salazarrek memoria soziala kontzeptua erabiltzen du, marjinalitate-, zapalkuntza- eta herritarren memoriaren babesleku-egoera batetik abiatzen den memoria gisa¹⁰. Ahozkotasunean ere oinarritzen da, berreraikitze kolektiboa bilatzen dute, eta hori sendotuz gero, memoria ofizialaren aurkako goranzko mugimendua hasten da, memoria publikoa eta legitimitate soziala birkonkistatzeko¹¹.

Aintzat hartuta proposamenaren azken emaitza mapa kolektibo interaktibo bat sortzea dela, hauei lotuta memoria leku desberdinak daude: memoria historikoarenak ofizial gisa hartzen dira, nahiz eta eztabaida publiko zein politikoak egon eta askok ez ofizialtasunean murgildu. Gainontzeko mugimenduen lekuen kasuan gehienak subalernoak dira,

⁸ Pierre NORA & Astrid ERLI: *Les lieux de mémoire* (Vol. 3, pp. 1984-1992). Paris: Gallimard, 1997, 24, 25 eta 33.or.

⁹ Michael POLLAK: *Memoria, olvido, silencio. La producción social de identidades frente a situaciones límite*. La Plata: Ediciones Al Margen, 2006, 4.or.

¹⁰ Gabriel SALAZAR: Función perversa de la 'memoria oficial', función histórica de la 'memoria social': ¿cómo orientar los procesos auto-educativos? (Chile, 1990-2002). *Archivo Chile. Curso de Formación General. Universidad de Chile*, 2002, 9.or.

¹¹ *Ibid.*, 9.or.

Intsumisioaren Parkearen salbuespenarekin, honek ekimen politiko eta instituzional batetik abiatuta sortu zelakoan.

2. “MEMORIA DUTEN ABESTIAK” IKASKUNTZA EGOERA:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) laugarren mailako Geografia eta Historia irakasgairako proposamena da, hirugarren hiruilekorako Gerra Zibilaren eta diktadura frankistaren edukiak landu ostean. Horrekin garrantzi soziala eta polemikak sortzen dituzten gaiak heldu nahi zaie, kasu honetan gizarte mugimendu berrien sortzea eta mantentzea. Proiektua bost taldeetan (hiru eta bost ikasle bitartekoak) egiteko prestatu da. Bakoitzak memoria historikoaren atal bat eta gizarte mugimendu bat aztertzen ditu. Guztira sei saioko (55 minutu) iraupena du, zeinaren barne bi fase bereizi daiteke: lehena memoria historikoa lantzeko eta bigarrena gainontzeko gizarte mugimenduak. Proposamenaren amaierako produktua mapa kolektibo interaktibo bat sortzea da talde guztien artean. Hurrengo taulan, - *Taula 1. “Memoria duten abestiak” ikaskuntza-egoeraren sekuentzia* – proposamenaren sekuentzia ikus daiteke.

Curriculumari dagokionez, gaur egun indarrean dagoen hezkuntza legea jarraitu da, 71/2022 Foru Dekretua¹². Proiektuan zehar lantzen diren gaitasunak gaiarekin harremanak dituzte, hala nola generoen arteko berdintasuna, gizarte mugimenduen papera, egungo erronkak, demokrazia eta memoria historikoaren edukiekin lotuta. Gaitasun horiek zeharka eta modu bateratuan landu nahi dira. Horrekin batera, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ildo pedagogiko eta metodologia kooperatibo berrietan oinarrituta dagoen ikaskuntza egoera da, kasu honetan Proiektuetan eta Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza. Biak ezagutzaren teoria konstruktibistan oinarritzen dira, zeinaren arabera ikaskuntza aktiboa eta indibiduala izan behar den, ikasleek ezagutza berriak lor ditzaten ikaskuntza esanguratsutik abiatuta. Hala, gizateriaren eguneroko bizitzaren arazo erreal batetik abiatutako proiektua bultzatzen da non ikasleek beren ezagutza eraikitzen duten ikerketa prozesuaren ostean. Gainera, bi horiekin ikasleak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren erdigunean kokatzen dira, eta beraz, protagonistak dira.

¹² 71/2022 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezkoa Bigarren Hezkuntzako etapako irakaskuntzaren curriculumaz ezartzen duena. *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 155, 2022eko irailaren 29a. <https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5954997>

Proposamenean Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsalaren (IDUa) printzipio orokorrak eta Aniztasunari Arreta Emateko Neurriak¹³ aplikatzen dira. Zentzu horretan, gaur egungo Arreta Faltaren Nahastea gehien agertzen den diagnostikoa denez eta ikaskuntza egoeran audiobisualak erabiltzen direnez, hauekiko neurriak haintzat hartzen dira¹⁴.

1. Taula. “Memoria duten abestiak” ikaskuntza-egoeraren sekuentzia. Egileak egina.

1. Saioa. Zer dakigu Memoria Historikoari buruz?	
Jarduerak	Materialak
<p><u>5 minutu:</u></p> <p>“Memoria duten abestiak” proiektuaren azalpena. Bost taldeen (3-5 pertsona artekoa) osatzea eta gaiaren araberako banaketa. Ikasleek landuko duten txostena <i>Classroom</i>-en zintzilikatuta egonen da aurretik, hau azalduko da honekin gaiak eta kantik landuko dituztelakoan bertan agertzen diren informazio iturrien bitartez.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gelako ordenagailua, proiektagailua eta arbela. • PowerPoint-a. • Ikasleen <i>Chromebook</i>-a.
<p><u>15 minutu:</u></p> <p>Memoria historikoa azaltzeko <i>Kahoot</i> baliabidea erabiltzen da ikasleen aurreko ezagutza aktibatzeke. Jardueran zehar eta ondoren, gaiaren inguruko azalpenak emango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zer da memoria historikoa. • XXIen mendeko memoria eztanda. • Instituzioen lana. Nafarroako Gobernuko, instituzioen eta elkarteen papera oroimenean. • Memoria lekuak. • Memoria gatazka eta adibideak (haur lapurtuak...). 	<ul style="list-style-type: none"> • Gelako ordenagailua, proiektagailua eta arbela. • PowerPoint-a.

¹³ 69/2023 Foru Agindua, abuztuaren 21ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako hezkuntza inklusioa arautzen duena. *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 196, 2023ko irailaren 19a. <https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5956347> .

¹⁴ 65/2012 Foru Agindua, ekainaren 18koa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan ikaskuntza-nahasmenduaren eta arreta eskasiak eta hiperaktibitateak eragindako nahasmenduaren ondorioz hezkuntza-laguntza behar espezifikoa dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza erantzuna arautzen duena. *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 143, 2012ko uztailaren 20a. <https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=26478> .

Errepresioa zer den eta motak.	
<p><u>15 minutu:</u></p> <p>Memoria historikoaren azalpenarekin jarraitzeko eta musika analisi-baliabide gisa nola erabil daitekeen azaltzeko, <i>La tierra está sorda</i> Barricada taldearen albumeko <i>Una lágrima en el suelo</i> abestia lantzen da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gelako ordenagailua, proiektagailua eta arbela. • Youtube • PowerPoint-a.
<p><u>20 minutu:</u></p> <p>Ikasleen lan autonomia taldeka. Txostenean abestien letrekin batera galdera batzuk daude kanta horien analisiarekin hasteko. Txostenean hurrengo egunerako egin beharreko etxerako lana agertzen da: familia senideei Gerra Zibilaren, frankismoaren eta oroimenaren inguruan galdetu behar diete. Txostenean lanaren azalpenarekin batera, galdera batzuk agertzen dira lagungarriak izan daitezkeenak galderarik bururatzeko ez bazaie.</p> <p>Nahiz eta lana Gerra Zibilari, frankismoari eta memoria historikoari bideratuta egon, txostenean azaltzen den bezala ikaskideren baten senideak testuinguru hori bizi ez badute horren inguruan zer dakiten edo beste gerra edo diktadura egoera bizi izanez gero, testuinguru horren inguruan galdetu dezake ikasleak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen Chromebook-a. • Memoria historikoaren txostena.
2. Saioa. Nola ikertu eta nola mapeatu?	
Jarduerak	Materialak
<p><u>15 minutu:</u></p> <p>Aurreko eguneko zereginaren zuzenketa lanerako ezarritako taldeetan. Talde bakoitzeko kideak azalduko du banan banan beren senideek etxean helarazitako informazioa eta ondoren, klase guztiaren artean komentario orokor bat egiten da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gelako arbela.
<p><u>10 minutu:</u></p> <p>Ikerketa nola egiten den azaldu, historiari begira eta ikasleek kontutan hartu behar dituzten faktoreen azalpena.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gelako ordenagailua, proiektagailua eta arbela.

<p>Mymaps-eko tresnaren bitartez, geolokalizazioa nola egiten den azaltzen da baita bertan informazioa nola iraultzearen ingurukoa. Horretaz gain azalduko zaie:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Talde bakoitzak bere gaiaren arabera erabili behar duen kolore kodea. • Mymaps tresnan geruza berriak nola sortu eta txintxetak nola jartzen diren irakasten zaie. 		
<p><u>30 minutu:</u> Ikasleen lan autonomoa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen <i>Chromebook-a</i>. 	
<p>2. Saioa. Nola ikertu eta nola mapeatu?</p>		
<p>3. Saioa. Memoria historikotik gizarte mugimendu berrietara</p>		
<p>Jarduerak</p>	<p>Materialak</p>	<p>Min.</p>
<p>Ikasleen lan autonomoa ikerketarekin jarraitzeko, tokiak geolokalizatzeko eta lortutako informazioa webgunean iraultzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen <i>Chromebook-a</i>. 	<p>25'.</p>
<p>Lehendabiziko eguneko <i>Kahoot</i>-a errepikatzen da, bi egun hauen arteko azalpenak ulertu dituztela eta haiek bilatutako informazioarekin gehiago ikasi duten ikusteko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gelako ordenagailua, arbela eta proiektagailua. • Ikasleen <i>Chromebook-a</i>. 	<p>5'.</p>
<p>1970 eta 2000 hamarkaden arteko testuinguruaren inguruko azalpena, Nafarora bideratuta egonen da, naiz eta Estatu mailako egoera ere azaldu. Gaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testuinguru soziala, politikoa eta ekonomikoa. • Gizarte mugimenduen agerpena eta aldarrikapenak. <p>Hasteko Leizeak taldearen <i>Maravillas</i> abestia erabiltzen da, memoria historikoaren eta gizarte-mugimenduen gaiak lotzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gelako ordenagailua, proiektagailua eta arbela. • <i>PowerPoint</i>-a. • <i>YouTube</i>. 	<p>25'.</p>

Talde bakoitza hurrengo egunerako egin behar duen etxerako -lana azalduko da: hurrengo egunerako dokumental bat edo batzuk (iraupenaren arabera) bistaratu beharko dute.	<ul style="list-style-type: none"> • Gelako ordenagailua, proiektagailua eta arbela. • <i>Classroom</i>. 	5’.
4. Saioa. Gizarte mugimenduak aztertzen		
Jarduerak	Materialak	Min.
Aurreko eguneko teoriaren zatiko errebaso azkarra, gizarte mugimendu berriak nola sortzen diren azalduz ikasleek argi izan dezaten.	<ul style="list-style-type: none"> • Gelako ordenagailua, proiektagailua eta arbela. • PowerPoint-a. 	5’
Proiektuaren bigarren zatiaren azalpena eta gaien zein baliabideen banaketa aurreko bost taldeen artean. Horrekin batera, 6.en saioan egin beharko duten aurkezpenaren azalpena egiten da, non printzipioz maparekin egin beharko dute eta beraz, ez litzateke beharrezkoa beste tresnarik erabiltzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Gelako ordenagailua, proiektagailua eta arbela. • PowerPoint-a. 	5’.
Hasieran aurreko eguneko etxerako lanaren inguruan solastuko dute, bertan eskuratu duten informazioaren ingurukoa.	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen <i>Chromebook</i>-a. 	10’.
Ikasleen lan autonomoa informazioa irakurtzeko, tokiak geolokalizatzeko eta lortutako informazioa webgunean iraultzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen <i>Chromebook</i>-a. 	35’.
5. Saioa. Gizarte mugimenduak aztertzen		
Jarduerak	Materialak	Min.
Ikasleen lan autonomoa, lana amaitzeko eta hurrengo egunerako aurkezpena prestatzeko. Une honetan talderen bat beharko balu, aurreko memoria historikoaren zatiaren ikerketarekin jarrai dezake.	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen <i>Chromebook</i>-a. 	55’.

6. Saioa. Aurkezpenak eta ebaluazioak		
Jarduerak	Materialak	Min.
Ikasleen autoebaluazioa eta ko-ebaluazioa eta proiektuaren ebaluazioa.	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen <i>Chromebook</i>-a. 	5’.
<p>Talde bakoitzaren aurkezpenak eta ikasgela osoaren arteko iruzkin orokorra. Talde guztiak aurkezpena maparen bitartez egingo dute, beraz ez litzateke beharrezkoa beste tresnarik erabiltzea hori egin ahal izateko.</p> <p>Irakaslea aurkezpenak errubrikaren bitartez ebaluatuko ditu, bai taldeka bai modu indibidualean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gelako ordenagailua, proiektagailua eta arbela. • PowerPoint-a. 	50’.

1. Taula. “*Memoria duten abestiak*” ikaskuntza-egoeraren sekuentzia. Egileak egina (2024)

Proiekturako hautatuko abestiak gizarte mugimendu bakoitzaren gaiarekin lotuta egoteaz gain, honetan lantzen den marko kronologikoarekin bat datoz ere.

2. Taula. Aukeratutako abestiak eta Gizarte-Mugimendu Berriak. Egileak egina.

Memoria historikoaren abestiak				
Taldea	Argitalpena	Albuma	Abestia	Azpigaia
Barricada	2009	<i>La tierra está sorda</i>	<i>Desfilan</i>	Arlo militarra eta Elizaren papera
Barricada	2009	<i>La tierra está sorda</i>	<i>Sotanas</i>	
Barricada	2009	<i>La tierra está sorda</i>	<i>Suela de alpargata</i>	
Barricada	2009	<i>La tierra está sorda</i>	<i>Hasta siempre Tensi</i>	Generoa, errepresioa eta emakumearen egoera
Barricada	2009	<i>La tierra está sorda</i>	<i>Pétalos</i>	
Barricada	2009	<i>La tierra está sorda</i>	<i>Infierno de piedra</i>	Alfonso XII gotorlekua,
Barricada	2009	<i>La tierra está sorda</i>	<i>La estancia</i>	Ezkaba mendia

Barricada	2009	<i>La tierra está sorda</i>	<i>22 de mayo</i>	
Barricada	2009	<i>La tierra está sorda</i>	<i>Es una carta</i>	Espetxeak eta espetxe gisa erabilitako tokiak.
Barricada	2009	<i>La tierra está sorda</i>	<i>Por la libertad</i>	
Barricada	2009	<i>La tierra está sorda</i>	<i>Llegan los cuervos</i>	
Barricada	2009	<i>La tierra está sorda</i>	<i>Los maestros</i>	Eremu politikoko eta irakaskuntzako pertsona errepresaliatuak
Barricada	2009	<i>La tierra está sorda</i>	<i>Matilde Landa</i>	
Mugimendu feministaren abestiak				
Taldea	Argitalpena	Albuma	Abestia	
Negu gorriak	1996	Salam, agur	Sexu makina	
Maixa eta Ixiar	1993	Maixa Eta Ixiar / Iker eta Larraitx	Emakume jaio nintzen	
Mugimendu intsumituaren abestiak				
Taldea	Argitalpena	Albuma	Abestia	
Oskorri	1995	25 Kantu Urte	Insumisioarena	
Kojon Prieto y Los Huajolotes	1997	<i>¡¡Echenle guindas!!</i>	<i>Insumisión</i>	
Mugimendu okuparen abestiak				
Taldea	Argitalpena	Albuma	Abestia	
Barricada	1986	<i>No Hay Tregua</i>	<i>Okupación</i>	
Parabellum	1993	<i>Hace Falta ...?</i>	<i>Noviembre 92</i>	

2. Taula. Aukeratutako abestiak eta Gizarte-Mugimendu Berriak. Egileak egina (2024).

Proiekturako hainbat baliabide erabiltzen dira, hala nola ikastetxearenak (gela, gelako ordenagailua, proiektagailua eta interneta), ikasleen *ChromeBook*-a eta *PowerPoint* azalpenetarako. Bestalde, Youtube eta Classroomez gain, beste plataforma batzuen erabilpena egiten da, lehena *Mymaps*, mapeaketarako online tresna dena zeinarekin ikasleek mapa kolektibo interaktiboa sortzen duten. Bigarrena *Kahoot* da, 20 galderez

osatutako galdetegi bat diseinatu da ikasleek memoria historikoari buruz duten aurretiazko ezagutzak ezagutzeko baita honen azalpenak emateko (testuingurua, bilakaera eta memoria-prozesuak). Amaitzeko, mugimendu bakoitzari lotutako txostenak diseinatu dira, non proiektuaren, ebaluazioaren, etxerako lanen eta gai bakoitzaren azalpenak agertzen diren ikasleek proiektua gauzatzeko euskarri gisa. Memoria historikoaren kasuan, informazioa webguneen, albisteen eta bideoen bitartez lantzen da, gainontzeko hiru mugimenduen kasuan informazio eskasa dagoenez, txostena idazketa moduan ematen zaie ikasleei, zeina irakurketa bibliografikotik lortu den. Bestalde, Diario de Navarraren garaiko albistek, testigantzak eta dokumentalak agertzen dira ikasleek lehen mailako iturriekin lan egin dezaten.

Ebaluaziori dagokionez, hainbat tresnen bitartez diseinatu dira norabide bakarrekoa ez izateko (irakaslea – ikasleak) baita ikasleen iritzia kontutan hartzeko. Gainera, metodologia honek ikasleei protagonismo handiagoa eskaintzen zaie, eta haien artean ebaluatuko direla ikusteak motibatu ahal die lanean haritzeko. Lana hiruhileko proiektu gisa prestatu denez, osotara amaierako notaren %30a suposatzen du. Irakasleak errubrika baten bitartez ebaluatuko du proiektua, honek guztira notaren %25a suposatzen du. Horren barne, talde nota %15a da non talde bakoitzeko lana, aurkezpena eta mapa interaktiboa ebaluatuko duen; eta gainontzeko %10a ikasle bakoitzaren banakako ebaluazioa da (lanaren prestakuntza, parte hartzea edo euskararen erabilera besteak beste). Ebaluazioa amaierako produktutik eta ikasgelako behaketaren bitartez egiten da.

Nota orokorraren gainontzeko %5a ikasleek egindako ebaluazioa izanen da, auto eta ko-ebaluaziorako errubrikatik kalifikazioaren %0.25 da, non kontutan hartzen den parte-hartzea, inplikazioa, jarrera, edukien prestakuntza eta kide horren nota orokorra. Bestalde, proiektuaren galdetegia daukagu, gainontzeko %0.25 suposatzen duena eta ikasleek proiektuaren inguruan duten iritzia ezagutzeko balio duena. Guztira 10 galdera dira garapen txikikoak eta hautatzekoak, non proiektuaren inguruko baliabideen, abestien, erabilgarritasunari edo alderdi positibo zein negatiboekin lotutako galderak dauden.

Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan Master Amaierako praktikaldietan proiektua Iñaki Otxoa de Olza ikastetxean gauzatu zen, D ereduko laugarren mailako klase batean 19 ikasleekin. Kasu honetan Hezkuntza Arretan Memoria historikoaren edukiak eman zituztenez, bigarren zatia gauzatu zen. Hala ere, ez zen proposamenaren berezko testuinguruan egin Gerra Zibilaren eta Diktaduraren edukiak ez zituztelako aurretik jaso. Proiektuaren garapenari dagokionez, sekuentzia didaktikoa jarraitu zen, guztira lau

saioekin. Kasu honetan, taldeak homogeneousak izan zitezten irakasgaiaren irakaslearekin egin ziren, hurrengoak: bi talde okupa mugimenduan (hiru kide bakoitzeko), bi talde mugimendu feministan (lau kide bakoitzeko) eta talde bakarra intsumisioan (bost kide).

Ikasleek mapan landutako edukiei dagokienez, ondorengo irudian (*Irudia 1. Iñaki Otxoa de Olzako ikasleak memoria duten abestiak proiektuko mapan landutako tokiak*) ikasleek egindako mapa finala ikus daiteke, txostenen informazioaren bitartez landutako gizarte mugimendu bakoitzari lotutako lekuekin. Proiektuarekin ikasleek gizarte-mugimenduei buruzko ezagutzak eskuratu zituztela ikus daiteke ere, baita nabarmendu daitekeen bi alderdi. Lehena, talde batzuek edo besteek landutako edukien arteko alde nabarmena dago; izan ere, intsumisioa landutako taldea ia soilik eskatutako gutxieneko espazioak egin zituen, eta aldiz, talde feministek batez ere, txostenetan agertzen ziren esparru gehiago garatu zituzten. Bestalde, talde batzuek beren gaiari gaurkotasan ikuspuntua gehitu zuten ere, azken urteetako espazio edo gertakari garrantzitsuak mapan barneratuz. Zentzu horretan, talde feministetako batek "La Manada"-ren kasua ekarri zuen, non mapan sententziaren eragina azaltzeaz gain, aurkezpenean aipatu zuten gertakari horrek garrantzi handia izan zuela mugimendu feministarentzat Iruñean, Nafarroan eta Espainiar Estatuan. Okupazioa landu zuten taldeen kasuan, biek azken urteetako gaztetxea sortzeko erabiltzen ez ziren espazioak okupatu zituzten bi kasu gehitu zituzten, Iruñean eragin handia izan dutenak beraienez, hala nola Maravillaseko Gaztetxea eta Errotxapeako Gaztetxea.

1. Irudia. Iñaki Otxoa de Olzako ikasleak memoria duten abestiak proiektuko mapan landutako tokiak. Egileak egina.



Irudia 1. Iñaki Otxoa de Olzako ikasleak memoria duten abestiak proiektuko mapan landutako tokiak. Mymaps tresnarekin egina.

Egileak egina (2024).

Amaitzean, ebaluazioa egin zen, non ikasleek auto eta ko-ebaluazioaren zein proiektuaren galdetegiaren ebaluazio zatia egin zuten¹⁵. Azken honen barnean, ikasle gehienek komentatu zuten ez zutela alde zurretik gizarte-mugimendu berriekin lotutako edukirik eman proposatzen den testuinguruan; batzuek aipatu zuten mugimendu feminista sufragioaren aldeko borrokari lotuta landu izan zutela ikasgelan. Zentzu horretan, ikasle gehienek adierazi zuten proiektua gustatu zitzaiela intereseko gaiak zirelako, garrantzitsuak eta ezezagunak, besteak beste. Musikaren kasuan, gehienek ikasgelan lan egin zuten aurretik musikarekin, interesgarria eta erabilgarria egin zitzaien, eta ikasteko beste metodo bat bezala balioetsi da, batzuentzat ikasten laguntzen zien elementua izan baitzen. Proiektuaren alderdi positiboak dagokienez ikasleek hainbat alderdiei egin zioten erreferentzia, batez ere gaien berritasunari, baliabideei eta garrantziari, interes handia izan zuten horiekiko. Bestalde, beste ikasle batzuek ikaskuntza prozesuari erreferentzia egin zioten, hala nola interaktibotasunari, talde lanari eta berritasunari, izan ere proiektua mapa batean egoteak haintzat berritzailea izan zen. Negatiboetan gehiengoak, denborari erreferentzia egin zioten, honen falta sentitu zuten mapa interaktiboa zein aurkezpena prestatzeko, hori dela aldatetean alderdi hau aipatu zuten. Zentzu horretan, baliteke proiektua denbora gehiago behar izana, hala ere, kontutan eduki behar da ikasleek ez zutela ikaskuntza egoera berezko testuinguruan egin, horrek ere zailtasunean edo egun gehiago behar izatean eragina izan ahal zuen. Amaitzeko, oro har ikasleentzako proiektuko baliabideak zein mapa interaktiboa erabilgarriak izan zirela edukiak lantzeko eta, proiektua gustuko izan zutela komentatu zuten.

ONDORIOAK:

Ikaskuntza-egoera honek eztabaida-gaiak modu kooperatibo eta dinamikoan lantzeko modu berritzaile bat bilatzen du. Hautatutako gaiak elkarren arteko kontrako errealitatea erakusten dute, memoria historikoak ibilbide historiografiko luzea du eta ikasgeletan duen presentzia azken hamarkadan geroz eta handiagoa den bitartean. Gizarte mugimendu berrien kasua kontrakoa da, azken urteetan argitalpen historiografikoetan presentzia handiagoa duen arren, beharrezkoak dira, are gehiago Nafarroaren kasuan, baina ez da ikasgeletara iritsi. Beraz, proposamen hau Unibertsitateko eta Bigarren

¹⁵ Hemen laburpen labur bat eskaintzen da, ekarpen guztiak behatu nahi izanez gero, laster egongo da eskuragarri Nafarroako Unibertsitate Publikoko Master Amaierako Lanen Kolekzioan, titulu berarekin (<http://hdl.handle.net/2454/4924>).

Hezkuntzako hezkuntza-mailen artean sortzen diren alde handietako bat arintzen saiatzen da.

Eduki horiek ikasgelan lantzea garrantzitsua da, egungo zein etorkizuneko belaunaldiek gizarte demokratikoago eta bidezkoago baterantz aurrera egiteko. Adostasun eda interpretazio bakarra ez duten iragan traumatikoak zein une historikoak ez dira oztopo izan behar hauek ikasgelara eramateko. Izan ere, ikasgelan gai horiek lantzea ikasleek iraganaren eta orainaren berezko interpretazioa egitea dakar, beren kontzientzia historikoa eta gaitasun kritikoa sustatuz. Alderdi hori proiektuaren praktikan islatu da, non ikasle batzuek loturak ezartzea lortu duten batik bat genero-indarkeriagatiko salaketen eta mugimendu feministak Iruñean 1980ko hamarkadan egindako aldarrikapenen eta 2016en urtetik aurrerako gertakariekin eta aldarrikapenekin; baita 1980ko eta 2010eko hamarkadetako okupazioen loturak ere. Beraz, ondorioztatu daiteke ez dagoela eduki zailik ikasleekin lan egiteko gizarte-mailan sortzen dituzten eztabaidak direla-eta; aitzitik, eztabaida horiek kontzientzia historikoaz eta gaitasun kritikoaz gain, ikasleek ikasgelan ikasten dutenaren eta gaur egungo edo iragan hurbilaren inguruan ezagutzen dutenaren berezko interpretazio bultzatzen dute.

Proposamenaren emaitzei dagokienez, balantze erreala lortzeko proposamen orokorrari buruzko emaitzak lortu beharko lirateke, memoria historikoaren edukiak barne proposamenaren testuinguru aiposean. Proiektuaren bigarren zatia praktikan jartzean emaitza eta ondorio batzuk ikusi ahal izan dira. Edukiei dagokienez, horiek ikasleentzat garrantzitsuak eta interesgarriak diren arren, ez dira ikastetxetan lantzen.

Praktikaldian lortutako emaitzekin ondorio batzuk atera dira, horien artean gizarte mugimendu berrien edukiak ikastetxeetan lantzen ez diren edukiak dira, zeinak ikasleentzat garrantzitsuak eta interesgarriak diren. Bestalde, teknologia berrien erabilpenean eta metodologia kooperatiboan oinarritutako proposamen didaktikoa sortu da. Baliabideen artean *Mymaps* ikaskuntza dinamikoa sortzeko balio izan du eta ikasleek ulertu dute gertaerak eta kolektiboen aldarrikapenak lekuekin lotura dutela. Txostenetan lehen mailako iturrien erabilpena sustatu da, albisteen eta dokumentalen testigantzen bitartez, zeinekin ezagutzak lortu dituzte eta gaiekiko sentsibilitate gehiago izatea eragin du ere. Amaitzeko, musika proposamenaren ardatz nagusia da, ikasleen erantzunetatik abiatuta argi gelditzen da Historia ikasgaiaren erabil daitekeen iturria dela, zeina gainera ikasleak edukiak sortzeko eta finkatzeko balio duen.